



AYUNTAMIENTO
VALLE DE EGÜÉS
EGUESIBARKO
UDALA



2023ko SARRIGURENGO JAIETAKO MOZORRO LEHIAKETAREN OINARRIAK

Lehena. - Data

Mozorro lehiaketa Sarrigurengo jaietan egingo da, 2023ko ekainaren 11n, igandea, 18:30ean.

Bigarrena. – Gaia

2023ko edizio honetan, gaia “Pelikulak” izango da. Talde bakoitzak film luze bat hartu beharko du erreferentziatzat, eta partaide guztiek mozorrotuta joan beharko dute film horrekin lotuta, guztiak mozorro berarekin edo pertsonaia berarekin joan beharrik gabe.

Ezin izango dute eduki sexistarik, homofoborik edo arrazistarik izan, ezta beste pertsona batzuen osotasunari eta ongizateari kalte egin diezaiokeen indarkeriazko adierazpenik ere. Jarduera amaitutakoan, mozorroen jabeek beren gain hartu behar dituzte mozorroak bide publikoan sor ditzakeen hondakinak.

Hirugarrena. - Lehiakideak

Gutxienez 10 eta gehienez 20 lagunek osatutako talde guztiek parte hartu ahal izango dute. Taldeetan edozein adinetako pertsonak parte hartu dezakete, baina beti egon beharko da pertsona heldu arduradun bat gai berarekin mozorrotuta.

Laugarrena. - Kategoriak

Lehiaketaren ondorioetarako, kategoria bakarra ezarri da:

TALDEA: 10-20 kide

Bosgarrena. – Izen-emateak

Lehiakideek ekainaren 7ra arte eman ahal izango dute izena, hurrengo estekaren bidez:
<https://valledeeguesparticipa.com/participa/concurso-lehiaketa/>

Izen-emateak doakoak izango dira.

Taldeak ekainaren 11n, igandea, 18:00etan, gazteen karpan kokatutako epaimahaikoaren mahaian aurkeztu beharko dira (Espainia Etorbidea, karpa txikia). Bertan, talde-zenbaki bat emango zaie.

Seigarrena. - Erakustaldia

Lehiaketan parte hartzeko, talde bakoitzak desfile txiki bat egin beharko du epaimahaiaren aurrean.

Zazpigarrena. - Epaimahaia

Epaimahaia honako udal-langileek osatuko dute:

- Gazteria teknikaria edo hark eskuordetutako pertsona.
- Berdintasun teknikaria edo hark eskuordetutako pertsona.
- Kultura teknikaria edo hark eskuordetutako pertsona.

Epaimahaiari ahalmena emango zaio oinarri hauetan aurreikusten ez diren gai guztiak ebazteko. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

Epaimahaiak, honako alderdi hauek kontutan hartuko ditu mozorroetan:

- Originaltasuna: berritzaileak, materialen birziklapena, bitxikeriak...
- Ikusgarritasuna: koloreagatik, elementu handiengatik, makillajeagatik...
- Langintza: eskuz egindakoak, konplikatua, apaingarriak edo osagarriak dituztenak...

Zortzigarrena. - Sariak

Talde irabazleak zinemarako sarrerak jasoko ditu bere taldeko kide guztientzat.

Lehiaketa amaitzean, Eguesibarko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen Elkarteko establezimenduetako opariak zozketatuko dira parte-hartzaile guztien artean.

Bederatzigarrena. – Oinarrien onarpena

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek eta epaimahaiaren erabaki ezeztazina erabat onartzea. Oinarri hauetan aurreikusi gabeko edozein arazo sortzen bada, antolakuntzak ebatziko du, eta parte-hartzaileek nahitaez onartu beharko dute. Era berean, antolakuntzak oinarri hauetako edozein aldatzeko eskubidea izango du, horrela jotzen bada.

Hamargarrena. – Datu pertsonalen eta irudiaren babesa

Datuak babesteko araudian ezarritakoa betez, jakinarazten dizugu Eguesibarreko Udalak datu pertsonalak erabiliko dituela, lehiaketa kudeatzeko eta baliabide propioak erabiliz hura zabaltzeko. Eskubidea duzu datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeke eta haien tratamenduaren aurka egiteko, udal-bulegoetara joanda. www.valledeegues.com helbideko pribatutasun-politikan aurki dezakezu informazio gehiago.

Eguesibarko Udalak talde partehartzaileen argazkiak eta/edo bideoak egiteko asmoa du, hainbat hedabidetan argitaratzeko (weba, sare sozialak, kartelak, liburuxkak...), lehiaketari zabalkundea emateko. Horretarako, beharrezkoa da parte-hartzaileen baimena izatea, eta, adingabeen kasuan, haien gurasoena edo legezko tutoreena. Horregatik, beharrezkoa da inskripzioa egiten duen pertsonak, Udalari bere datuak tratatzeko baimena eman aurretik, horren berri ematea eta parte-hartzaile guztien baimena izatea. Pertsonaren batek baimenik eman ez badu, izena emateko orduan irudiak zabaltzeko galderan ez onartzeko aukera markatu beharko du.

Udalak hitz ematen du irudi horiek erabiltzeak ez diola inola ere kalterik egingo parte-hartzaileen ohoreari eta intimitateari, ez eta haien interesei ere, eta errespetatu egingo dituela datuak babesteko araudia, intimitaterako eskubidea eta norberaren irudirako eskubidea.